

litzakeala erabagi orregaitik zorionak ematea. Ontzat artu da eta bijoaz gure zorionak Donostiako udaletxearentzat.

Zatarain jaunak irakurri du iztegi kaletarrari buruzko txosten bat, jatorrizko itzak jator zelan obeto autatu, bere aburuz.

Erkiaga jaunak irakurri du beste txosten bat oraingo idazleen anarkiari buruz, aldizkarien zuzendarieri dei egiafiaz. Bere eskariz, zabaldu bedi idazki ori euskal-aldizkarietara, biltzarrean ontzat artua izan dan bezela.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
**MANUEL LEKUONA**

**Idazkaria**  
**JUAN SAN MARTIN**

\* \* \*

**1967 - VI - 30**

Donostia, 1967-ko garagarrillaren 30-ean.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru dana, Diharze (Iratzeder), Irigoyen, Mitxelena, Labayen, Larzabal, Satrustegi, Villasante eta Zabala euskaltzainak; Etxaburu, Etxaniz, Garmendia (Zeleta), Goikoetxea, Jauregi (Luis), Loidi, Oñaitibia, Zatarain, Zubikaray eta Zugasti euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Arrue, Erkiaga, Irigaray, Lojendio, Olaizola eta Oleagak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Buruzagiak ongi etorri berezia egin dio Mitxelena jaunari aspaldiko ordezkari gure artean ikusteagatik.

Ondoren, Mitxelena jaunak iztegiari buruzko argitasun batzuk eman ditu. Berak, orain, Salamanca'n egon bearra duanez, bere lana aurrera eramango badu Donostian edo ordezkari bat izendatzea eskatzen du, berekin ar-emanan izan dezan, premiazko dituan gauzak ihardesteko. Uste du iru liburutan argitaratzea obe dala eskuartearen erabiltzeko neurri ohea izan dedin, ta gaiñera 25 × 15 zentimetru inguruko neurrian. Lanak obeto begiratuko ditu eta erantzungo digu ia lehen tomoa datorren urtean argitaratzeko biderik izan lezakean.

Ministerio de Educación y Ciencia'ra audientzia eske berriz egin dan gutunaren kopia irakurri da. Kopia au Ministerioko sekretaritzan seillatua dator. Pedro Yrizar euskaltzain laguntzaillearen bidez egin da eta bere karta ere irakurri da. Yrizar jaunari eskerrak eman bekioz bere lanagatik.

Donostiako «Colegio de Abogados»tik, Muguruza jaunak izenpeturik, gutun bat jaso de lehenago ari giñan euskal-erdal itzultzaileeri buruz, beren aldetik aurrera eramateko erabakia artu dela esanaz, eta gure laguntza eske. Arrue ta Lojendio euskaltzain lege-gizonen eskuetan uztea erabaki da.

Gernika'ko Azkunaga alkate jaunaren agur bat, an izango duten Jose Maria Codon-en itzaldira dei egiafiaz.

Bayonako «Irazkintza»ren idazki bat, beren euskeraren alderako asmoak adieraziz.

Nájera'ko Santa María de la Real delako komentutik aita Luis Esnal'ek idatzi du euskal-musika batentzat letra eskatuaz.

Iruñeko ikasle andana batek Irigaray jaunaren bidez Euskaltzaindiari egiten dien gutuna irakurri da, iztegi modernu baten eskea egiañaz, egunoro kalean bear diran itzekin ta itz tekniku-zientzifiku arruntenez orniturik. Ain zuzen ere aurrera daramate iztegirako aspaldi izendatu zan batzordekoak, ta Loidi bertako idazkariak zenbait berri eman ditu, berek ortaz San Telmo'n astero izaten dituzten billerena, «C» letrara iritxiak direla esanaz. Dena dela, gazte auek erakusten digute beren euskeraganako gogoia ta bearra. Era berean, zeatz, Helena Gerezaga'ren idazki bat ere irakurri da.

Errenteriako S. D. C. Erentza alkartearen gutun bat, berek Madalenetan eratuko duten ipui sariketarako maipurukoak eskatuaz. Juan Maria Lekuona, J. A. Loidi eta A. Valverde izendatu dira.

Lafitte jaunak «Atlas Lingüístico»rako gertatu zuen textua frantsez eta espainolez multikopiaz aterea dela aditzera eman da. Euskaltzaindiko en artean zabaldu da, baiña beren euskalkietara itzultzea nai duten guzieri emateko prest gaudela esan da.

Zabala jaunak eman du (Arrue jaunaren ezin etorria adierazi ondoren) Bertsolari Txapelketaren berri: Uztapide berriz ere txapeldun atera dala esanaz, eta Xalbador bigarren, Lopategi irugarren eta Lazkao-txiki laugarren. Diru kontuak zeatz urrengo biltzarrean emango dirala. Batzordekoak eta maipurukoak izan dituzten arduregaitik bazkari bat eskatu da ta ontzat artu da.

Labayen jaunak irakurri du **Euskal Teatroaren iztegia**'ri buruzko txosten bat.

Beobidek aditzera eman du uztaillaren 16'tik 18'ra antzerki ikastaroak izango dirala Zaldibarren (Bizkaia) «Gerediaga» alkarteak antolatuak.

Ministru jauna Donostiara etortzeko denez, audientziarako izendatu zen batzordeak une ori aprobetxatu bear lukeala bilinguismoari buruz personalki mintzatzeko.

Oñatibia'k dio irakasle izan nai dutenentzat ikastaroak eratu dituztela udara onetarako, ta ongi litzakeala esamiña baten ondorean Euskaltzaindiak irakasletzarako agiriak ematea.

Baita ere aditzera eman da Zumarraga'ko Ayerbe jaunak era orretako agiriren bat nai duela beretzat, euskal-klaseak ematen diardualako.

Idazkaria euskaldunen alfabetatzeari buruz mintzatu da. Lehendik izendatua zen batzordera Rikardo Arregi geitzea eskatu du. San Telmo'n (Donostian) Euskaltzaindiak duen ofizinan lekua eskatu du alfabetatzarako burego lana an egin ahal izateko. Eta azkenean baimena alfabetatze kanpaña onetan «Euskaldunak euskeraz: irakurri, itzezin, idatzi» slogana ere guzietan zabaldu ahal izateko. Slogan au erabiltzea eta Rikardo Arregi euskaltzain laguntzaillea komizioan sartzen ontzat artuak izan dira, baiña San Telmo'ko ofizina tokia uztea Real Sociedad Vascongada de Amigos del País'koeri eskatu bearko litzaiokeala esan da. Beraz, idaz-

karia gelditu da Alvaro del Valle Lerchundi jaunarekin personalki mintzatekotan.

Berriz ere aurren ikastoletarako eskola-liburueri buruz jardun da. Idazkariak aditzera eman du, personalki mintzatu zala Santo Tomás de Aquino'ko irakasleekin eta maisu ta maistren irizpide desberdiñak ikusi ondorean, uste duela aietarikoak ere ikastoletarako textuak autatzeko sortu zen batzordean sartzeko premia dagoala, ta ahal izatera irizpide bietarako liburuak aukeratu.

«Atlas Lingüístico»a osatzen joateko multikopiaz atera diran orriak zabaltzea Euskaltzaindiko guzieren eskatzen zaie. Itzulpenak bildu ta gero inork bete gabe gelditu diran euskalkiak osatzea istudiatu bear litzakeala esanaz.

Biltzarretan irakurtzen diran txostenak artxibu berezi batean gorde bear litzazkela eta batzorde bat edo izendatu lanik onenak eta bearrezkoenak EUSKERA aldizkarirako autatzeko.

Oi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

**Euskaltzainburua**  
MANUEL LEKUONA

**Idazkaria**  
JUAN SAN MARTIN

\* \* \*

1967 - VII - 28

Donostia, 1967-ko uztaillaren 28-an.

Bildu dira: Manuel Lekuona buru, Jean Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Satrustegi eta Villasante euskaltzainak; Artola (Bordari), Barandiaran (A. Emiliano), Beobide, Etxaniz, Garmendia (Juan), Garmendia (Xalbador), Lekuona (Juan M.<sup>o</sup>), Lizundia, Olaizola, Oleaga, Saizarbitoria eta Zatarain euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre eta Erkiaga euskaltzainak ezin etorria adierazi dute.

Oi dan otoitzarekin asi da biltzarra.

Garagarrilleko biltzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Aita Onaindia eta Ana M.<sup>o</sup> Etxaide-k eskerrak emanaz idatzi dituzten gutunen berri eman da. Etxaburuk «Gizon on bat» idazkia Ondarruako euskalkira itzulia igorri du gutun batekin bere ezin etorria adieraziz, eta karta berean die: «Euskaltzaindiaren azken batzarreko agirian «andana» itza irakurri dot. Ezdet uste «grupo» lez agertzeko egokia danik». Baiña mugazandiko euskaltzainak berek orrela erabiltzen dutela diote, ta buruzagiak dio Oartzuneren «endana» erabiltzen dutela talde, aldrada edo illara adierazteko. Azkue'n iztegiak ere era onetara dakar «andana», hilera, fila, tropa.

Tudelako Colegio de San Francisco Javier'etik Aita Guillermo Larrañaga'ren gutun bat artu da irakaskuntza gaietarako gertaturik dituan liburuak eskeiñiz: Landare-jakintza, abere-jakintza, giza-soiña, bizi-jakin-